



SEDAZIOA EGIN ONDOREN KONTUAN IZATEKO GOMENDIOAK
RECOMENDACIONES POSTERIORES A LA SEDACION

Miaketa endoskopikoa egin berri dizugu, medikazio lasaigarria eta analgesikoa eman behar izan dizugu; hori dela-eta zure erreflexuak lasaigarrien eraginpean egon daitezke zenbait ordutan miaketaren ostean.

Hurrengo 24 orduetan, beraz, gomendio hauek bete behar dituzu:

1. Zutaz arduratzeko gai den **pertsona heldu batek lagundu behar dizu** etxeraino.
2. **Autoz** (baina beste batek gidatu beharko du) edo taxiz itzuliko zara etxera.
3. Etxean **atseden hartu behar duzu** (ohea, sofa...)
4. Kontuz **gorputzeko jarrerak aldatzean**. Egin astiro eta pixkanaka-pixkanaka.
5. Jan **dieta suabea**.
6. **Ez edan** alkoholdun edaririk.
7. **Ez hartu erabaki garrantzitsurik**.
8. Jarraitu **ohiko medikazioa hartzen**.
9. **SINTRON** edo **ANTIAGREGATZAILEAK** (Aspirina, Adiro, Plavix...) hartzen hasi aurretik, zure medikuari galdetu.
10. **Diabetikoa bazara**, arreta berezia jarri gluzemia-kontrolari.
11. Txiza urdin antzekoa egiten baduzu, probaren tindaketatik da.
12. **Goragalea, okak, mina** edo **beste ezohiko edozein arazo** izanez gero, eta bere horretan irauten badute, jarri harremanetan ospitalearekin:

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 943.03.53.00

Astelehenetik ostiralera, 08:00 – 15:00
(Endoskopia Zerbitzua)

BEHAR IZANEZ GERO, ETORRI OSPITALERA

Astelehenetik ostiralera	15:00 – 08:00	DEBAGOIENKO OSPITALEKO LARRIALDIETAKO ZERBITZUA
Larunbat, Igande eta jaiegunetan	Egun osoan	

Tenga en cuenta que se le va a realizar una exploración endoscópica en la que será necesario administrarle medicación sedante y analgésica que puede alterar sus reflejos durante varias horas tras su administración

En las próximas 24 H deberá tener precaución en cumplir las siguientes recomendaciones:

1. Será **acompañado** de regreso a su domicilio por un *adulto responsable capaz* de hacerse cargo de usted.
2. Volverá a casa en **automóvil** (*sin conducirlo usted*) o en taxi.
3. En casa guardará **reposo relativo** (cama, sofá...)
4. Realice los **cambios de postura** de forma suave y progresiva.
5. Coma una **dieta suave**.
6. **No beba** ningún tipo de bebida alcohólica.
7. **No tome decisiones importantes**.
8. Tome su **medicación habitual**
9. Tome su **medicación habitual**. **CONSULTE A SU MEDICO ENDOSCOPISTA ANTES DE INICIAR SINTRON Y ANTIAGREGANTES** (Aspirina, Adiro, Plavix...)
10. **Si es usted diabético**, preste atención especial a los controles de glucemia.
11. En el caso de orina azulada, es por la tinción de la prueba.
12. Si sufre **náuseas, vómitos, dolor** que no ceden o cualquier **otro problema anormal** en usted:

TELÉFONO DE CONTACTO: 943.03.53.00

De Lunes a Viernes De 8 a 15 horas (Sº Endoscopias)

ACUDA SI PRECISA

De Lunes a Viernes	De 15 a 8 Horas	SERVICIO DE URGENCIAS DEL HOSPITAL ALTO DEBA
Sabados Domingos y Festivos	Todo el día	